

LEON XIV.a AITA SANTUAREN MEZUA MIGRATZAILE ETA ERREFUXIATUAREN 112. MUNDU JARDUNALDIRAKO

(2026ko irailaren 27an)

Ez gutxietsi txiki hauetako inor (ik. Mt 18, 10)

Anai-arreba maiteok!

Urte egin ohi den Migratzaile eta Errefuxiatuaren Mundu Jardunaldi hau egokiera dugu migrazio fenomeno konplexuaren alderdi ezberdinei begira jartzeko. 112. Jardunaldi honetako goiburua honako hau da: “Ez gutxietsi txiki hauetako inor”. Migrazioaren eta ihesi ibili beharraren esperientzia beren haragian jasaten ari diren adin txikikoei arretaz begiratzera gonbidatzen gaitu goiburu horrek, txiki horien kezka izatera eta Jaunaren promesa aintzat hartzera: “Honelako haurra nire izenean onartzen duenak Ni onartzen nau” (Mk 9, 37).

Lekualdatutako adin txikikoak: egoera konplexua eta zaurgarria

Munduan gertatzen ari diren migrazio-mugimenduetan zaurgarrienak adin txikikoak dira. Ikus ditzakegun aurpegiak dira, historia zehatzak eta deika ari zaizkigu kontzientziara. Milioika dira urtero beren herriak utzi eta alde egitera behartuak gertatzen diren haur eta nerabeak, gerrateak direla eta, pobrezia, indarkeria, ingurumeneko hondamendiak eta beste ezbehar batzuk direla eta. Tamalez, gero eta gehiago dira hori jasaten ari direnak. Ekonomia aldetik, politika aldetik eta militar aldetik ditugun erantzukizunak ikaragarriak dira. Sufrimendua ez da lekualdatu beharrak dakarrena bakarrik; haur txiki askok galdu ditu gurasoak, senideak, lagunak eta, gainera, indarkeria izugarriaren testigu izan da horietako asko. Beste batzuk, berriz, beren ahaideengandik urruti bizi beharrean gertatzen dira luzaro, ahaide horiek aurkitzeko eginahalak egin beharrean eta, bitartean, urruti izatearen atsekabe latza nozitzen ari dira. Beste haur batzuek, bidaia gurasoekin egiten ari direlarik ere, egoera latz eta traumatikoak bizi dituzte. Ezin ahaztu, azkenik, haurrengandik apartatuz gurasoak beren herrira itzularazten dituztenean, haur horiek zein egoera larrian gelditzen diren.

Berez lazgarria den panorama horri beste tragedia batzuk ere gehitzen zaizkie: migrazio-bideetan zehar izaten diren heriotzak, pertsonen trafikoa eta ustiaketa, adin txikikoak atzematea gatazka armatuetan sartzeko, bortizkeria sexuala, behartutako ezkontzak, bidean noizten nahiz ikusten dituzten basakeriak. Era askotara zanpatzen diete giza duintasuna.

2017an, “Adin txikiko migratzaileak, zaugarriak eta hitzik gabeak” goiburu pean izan zen Migratzaile eta Errefuxiatuaren Mundu Jardunaldirako emandako mezuan, Frantzisko Aita Santuak hau zioen: “Hiru arrazoiengatik daude adin txikikoak babesik gabe: txikiak direlako, atzerritarrak direlako eta babesgabeak direlako. Arrazoi askorengatik, beren sorterritik urruti bizitzera behartu dituzte eta familiaren maitasunetik aparte”.

Ilunpe beltz honen erdian, hala ere, ez da falta solidaritatearen argi-izpia: badira egoera horren aurrean beste alde batera begiratzen ez duten pertsonak, erakunde zibilak eta eliz elkarteak (ik. *Lk* 10, 29-37). Hor dira beren etxeko ateak txiki horiei irekitzen dizkieten familiak, etxeko bero goxoa eskaintzeko; hor dira harrera-elkarteetako hezitzaileak, hor dira bideetan nahiz hirietan halako txikiak hartzen dituzten eta zauriak lotzen dizkieten boluntarioak eta langileak. Maitasunak axolagabekeria mendera dezakeela ikusarazten dute horrela jokatz.

Ez gutxietsi txiki hauetako inor

Txiki hauetako batek, edozeinek, dei egiten digu, *Eliza baitan bizi garenoi*, abegi edo harrera egitea burutapen hutsa ez baizik, etengabeko jarduera edo praktika pastoral bihurtzera. Ezin dugu eginkizun hori, horretako karisma duten erakunde nahiz asoziazioen esku besterik gabe utzi. Egunero oihuka ari zaizkigun aurpegi horien aurrean, kristau elkarte osoak sentitu behar du seme eta alaba dituela, eta horietako bakoitzaren historia gertutik ezagutu behar duela. Migratzaile eta errefuxiatu horiek, familia den Elizako kide eskubide osoz direla onartu behar dute kristau elkarteek eta hala balioztatu behar dituztela. Horretako, heziketa-bide berriak eta espiritua lantzeko bide berriak eratu beharko dituzte, pertsona bakoitza kontuan izanez ere bai, hala behar bada, artatze edo laguntze hutsean gelditu gabe. Zehatz esanda, oso garrantzitsua da neurriak hartzea bakardadea, isolamendua eta bazterketa ekiditeko. Migratzaileen

seme-alabek maiz nozitzen dituzte halako egoerak. Elkar ongi eramateko eta elkarrekin integratzeko dinamikak bultzatu behar dira, bertako gazteek eta etorkin diren gazteek elkar sendo dezaten, elkarri begirune izanez, solidario izanez eta adiskidetasuna sustatuz.

Txiki hauetako batek, edozeinek, ikusarazten digu, *erlijio ezberdinen esparruan ere*, txikienek nozitzen duten zaurgarritasunak ez duela mugarik erlijioen artean, eta gizaki eta espiritual garen aldetik denok dugula horretan erantzukizuna. Egokiera izan daiteke hau erlijioen arteko elkarriketa zehatza izateko sinestedunon artean, transzendentziaren zentzua dugula aintzat harturik, babes-sareen antolaketari elkarrekin ekin diezaiogun. Sinestedun-elkarteek jakin behar lukete gune bereziak antolatzen, neskato nahiz mutiko bakoitza bere nortasun kulturean errespetatua eta balioztatua izango den guneak, muturreko taldeen erradikalizazioaren arriskutik babesteko. Azken batean, haur bat babestea, Jainkoak halakoarengan jarri duen bere zantzua zaintzea da.

Txiki hauetako batek, edozeinek, ikusarazten digu, *erakunde zibiletan ere*, adingabekoaren arreta izan behar duela gauza guztien gainetik. Haur eta nerabe bakoitza babestea eta halakoaren duintasuna errespetatzea jarri behar dutela bere arretaren erdigunean erakunde publiko eta pribatuak. Babeserako baliabide juridiko eraginkorrak jarri beharra eskatzen du horrek eta, horretako, familia berekoak berriro biltzea eta banaketaren trauma ekiditea. Ezinbestekoa eta larria da ikuspegia aldatzea: migrazio-fluxuak nola kudeatu eztabaidatzearen aurretik jarri behar da giza eskubideak berehala eta oso-osorik babestea, “erantzun koordinatua, solidarioa eta eraginkorra emanez, migratzaileei babesa, harrera ona eta integraziorako benetako egokierak eskainiz” (Espainiako Parlamentuan hitzaldia, 2026ko ekainaren 8an).

Gutako bakoitzaren kontzientzia ukitu behar duten Jesusen honako hitz hauek oroitarazten dit egoera dramatiko honek: “Honelako haurra nire izenean onartzen duenak Ni onartzen nau” (*Mt 18, 5*). Kontua ez da zenbakiak ematea eta estatistikak egitea. Kalkulurik egiten ez ibiltzeko esaten digu Ebanjelioak: *hauetako bat bakarra bada ere*. Haur bakoitzak, gizaki bakoitzak mugagabeko duintasuna du. Jainkoaren antz eta irudikoa da (ik. *Has 1, 26*), halakoarengan Jauna bera dago. Adin txikiko migratzaile bakoitzaren aurrean apaltasun- eta sinesmen-egintza egin beharrean gara:

haurrarengan, hain zuzen, Jauna bera aurkitu eta onar dezakegu. Dei hau are eta premiazkoagoa gertatzen da, Mateoren Ebanjelioan Jaunak dioen beste hau kontuan hartzen badugu: “Arrotz nintzen eta etxean hartu ninduzuen” (Mt 25, 35).

Tamalez, migratzaile txikiei gainerakoei baino errazago egiten diegu ezikusiaarena, ez baitute babestuko dituen eta lagunduko dien pertsona heldurik. Horien sorterrietan esku hartu beharra dago, handik alde egitera behartzen dituzten kausak ezabatzeko. Eta igaro behar dituzten nazioetan eta helmugatzat dituztenetan babesa eta harrera ona eskaini behar diegu. Lekualdatzera behartutako txikien garrasia Jainkoaganaino iristen da gaur egun, Irteera liburuan datozenak iritsi ziren bezala: “Ongi ikusia dut nire herriaren atsekabea Egipton eta entzuna haien oihua zigorpean; bai, ohartu naiz haien oinazeaz. Egiptoarren eskuetatik libratzera etorri naiz” (Has 3, 7-8). Jainkoak entzuten du garrasia eta, halakoak libratzeko, gutako bakoitzaren kontzientzia eta jarduera indarrez astintzen du, Moisesena inarrosi zuen bezala. Ezin gara axolagabe gelditu eta hainbesteko sufrimendua ikustera ohitu.

Erantzukizunez jokatzeko deia denentzat

Txiki hauetako batek, edozeinek, dei egiten digu *gure kontzientzia pertsonalera*, begiak eta bihotza ireki dezagun halakoen historia, halakoen beldur eta kezkak, halakoen ametsak arretaz entzun ditzagun, axolagabekeria baztertuz, gizakia estatistika hutsera murriztua utzi ez dezagun, geure burua ukitua sentitu gabe. Haurrak, migratzaile izan aurretik ere, duen duintasuna aitortzeko deia da hau, eta haurraren oinarritzko eskubideak babesteko deia: bizitzeko eskubidea, heziketa hartzeko eskubidea, bizi-maila egokia izateko eskubidea, behar bezala hazi eta garatu dadin bai alderdi fisikoan, bai mentalean, espiritualean, moralean eta sozialean ere.

Jar ditzagun migratzaile eta errefuxiatu txiki horiek Ama Birjinaren babespean. Mariak ere, Joserekin eta Jesus haurrarekin batera, Herodes erregearen indarkeria ankerra nozitu behar izan zuen eta Egiptora ihesi joan (ik. Mt 2, 13-15); lagun izan dezatela Ama Birjina beren bidean, eta lagun diezaiela gure elkarteei Ebanjelioaren ezaugarri bizi eta sinesgarri izaten.

Vatikanoan, 2026ko abuztuaren 11an, Asisko Santa Klararen oroipenean

LEON XIV.a Aita Santua